

## ZIURTAGIRIA/ CERTIFICADO

ESPEDIENTE EXPEDIENTE Nº	ZK./	KIDE ANITZEKO ÓRGANO COLEGIADO	ORGANO/A/	SAIOAREN DATA/ FECHA DE LA SESIÓN
6011/2026		Tokiko Gobernu Batzordea / Junta de Gobierno Local		17/03/2026

ORGANO HONETAKO IDAZKARIA NAIZEN ALDETIK, ZIURTATZEN DUT:

Goian adierazitako egunean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zen:

EN CALIDAD DE SECRETARIO/A DE ESTE ÓRGANO, CERTIFICO:

Que en la sesión celebrada en la fecha arriba indicada se adoptó el siguiente acuerdo:

### EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2026KO DEIALDIA ONARTZEA./APROBAR LA CONVOCATORIA DE LAS AYUDAS 2026 PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DE CARA AL FOMENTO DE LA CULTURA VASCA.

Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad /Asentimiento
--------------------	---

### EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN 2026ko DEIALDIA ONARTZEA

1.- Getxoko Udalak 2019an onetsi zuen Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa, ESEP (2025eko otsailaren 11ko Gobernu Batzaren 40 zenbakia duen akordioz onartua urte honetarako). ESEParen helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak bultzatzea. Getxon, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

2.- Getxoko bizitza sozialean ohiko bihurtu dira euskal kulturatik eratorritako zenbait jaialdi. Jaialdi hauek herriko elkarteek antolatzen

APROBACIÓN DE LA CONVOCATORIA, año 2026, DE SUBVENCIONES DE CARA AL FOMENTO DE LA CULTURA VASCA

1.- El Ayuntamiento de Getxo aprobó en el año 2019 el Plan de Fomento del Euskera, ESEP, (aprobado para 2025 mediante acuerdo nº 40 de Junta de Gobierno Local de fecha 11 de febrero de 2025) con el objetivo principal de impulsar las medidas de política lingüística necesarias para salvaguardar la opción de los ciudadanos de vivir en euskera. Dar pasos para conseguir en el municipio de Getxo la recuperación del euskera tanto a nivel personal, social y oficial.

2.- En la vida social de Getxo se celebran anualmente varios acontecimientos o fiestas derivados de la cultura vasca. Estas fiestas



dituzte eta ikusle, entzule edo eta parte hartzaile kopuru handia izaten dute. Jaialdi hauen helburua getxotarren artean Euskal kulturako adierazpide batzuk ezagutzera ematea da.

3.- Getxoko hainbat elkartek, erakundek, enpresak... euskara edo euskal kultura sustatzeko ekintzak burutzen dituzte. Getxoko ESEPe jasotzen duen moduan, Udalak interesa du eragile horiek lokal egokiak izan ditzaten euren jarduerak burutzeko.

4.- Kontuan izanda Getxoko ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak, ere helburu berdinak bilatzen dituela, hemen diruzlagunduko direnak ESEPen jasotako helburuak betetzeko ekintza baliagarriak dira.

5.- Proposamen honetan jasotzen diren laguntzak Getxoko Udalak ESEP (2025eko otsailaren 11ko Gobernu Batzaren 40 zenbakia duen akordioz onartua urte honetarako). garatzeko duen Planean jasota daude.

Horregatik, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38 /2003 Lege orokorrarekin eta Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Dirulaguntzak Ematea Araupetzeko, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako ordenantzarekin bat etorrira (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua eta 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurak aldatua. Aldaketa hauek 2025eko martxoaren 1ean sartu ziren indarrean.), Euskara Zerbitzuak euskarazko kultura sustatzeko dirulaguntza deialdia egin du eta Kultura eta Euskara Zinegotziak honako proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzari:

suelen ser organizadas por asociaciones del municipio y suelen gozar de gran éxito y público. El objetivo de estas acciones es el de dar a conocer, entre los y las getxotarras, estas expresiones de nuestra cultura.

3.- Las asociaciones, entidades, empresas de Getxo organizan numerosas actividades de fomento del euskera y de la cultura vasca. Tal y como queda recogido en el ESEP de Getxo el Ayuntamiento tiene interés en que dichos agentes cuenten con locales adecuados para organizar sus actividades.

4.- Estos objetivos quedan recogidos también en el Plan de Fomento del Euskera en vigor (ESEP). Por tanto se ayudan acciones adecuadas para el cumplimiento de los objetivos del ESEP.

5.- Las ayudas recogidas en la presente propuesta de acuerdo están recogidos en el ESEP de Getxo (aprobado para el 2025 mediante acuerdo nº 40 de Junta de Gobierno Local de fecha 11 de febrero de 2025).

Por ello, y ajustándose tanto a la Ley 38/2003 General de Subvenciones como a la Ordenanza Municipal aprobada en Pleno el 23 de diciembre de 2021 (publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia número 52, de 16 de marzo de 2022 y posteriormente modificada en pleno municipal de 28 de noviembre de 2024 con entrada en vigor el 1 de marzo de 2025) el Servicio de Euskera ha procedido a elaborar la convocatoria de subvenciones para fomento de la cultura en euskera y la Concejala de Cultura y Euskera propone a la Junta de Gobierno Local lo siguiente:

2026(e)ko martxoaren 6(a)(e)ko PR/2026/2567 ebazpen proposamena ikusita, 2026(e)ko martxoaren 10(a)(e)an aldeko fiskalizazioa jaso zuena./ Vista la propuesta de resolución PR/2026/2567 de 6 de marzo de 2026 fiscalizada favorablemente con fecha de 10 de marzo de 2026.

## **EBAZPENA/ RESOLUCIÓN**



1.- Euskal kultura sustatzeko dirulaguntzak emateko 2026ko deialdia onartzea.

Euskal Kultura sustatzeko 48.858 euroko gastua onartzea 2026 urtean. Aurrekontua hau 6 laguntza ildotan banatzen da:

- 1. ildoak: Getxon, lokal baten gastuetan laguntzea, bai onuradunek bertan euskara edo euskal kultura sustatzen duten ekimenak antolatzeko, bai lokala uzteko hirugarren batzuek antolatu ditzaten bertan aipaturiko ekimenak.

Jarduera honetako laguntza **11.760 euro** izatea proposatzen da.

- 2. Ildoa. San Juan suak antolatzeko **2.625 euroko** laguntza

- 3. ildoak: auzoetako Olentzeroak antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.

o Algortako Olentzero: **8.032,5€**

o Areetako Olentzero: **6.825€**

o Andra Mariko Olentzero: **3.203€**

o Romoko Olentzero: **1.968,75€**

o Neguriko Olentzero: **1.443,75€**

- 4. Ildoa: **6.300 euro** Euskal Herri mailako kultur adierazpenik indartsuena eta Getxotik pasatzen denerako laguntzeko.

1.-Aprobar la convocatoria de las ayudas 2026 para la concesión de subvenciones de cara al fomento de la cultura vasca.

Autorizar, para el año 2026, el gasto de 48.858 **euros**, de cara a la concesión de subvenciones para el fomento de la cultura euskaldun durante el año 2026 distribuidos en 6 líneas de actuación.

o Línea 1: ayudar a sufragar los gastos de un local en Getxo, bien para que las personas beneficiarias organicen en dicho local, actividades de fomento del euskera o la cultura vasca, o bien para la cesión del local a terceros para la organización de dichas actividades.

Se propone una subvención de 11.760 euros

o Línea 2; **2.625 euros** para ayudar con las fogatas de San Juan

o Línea 3 para ayudar con los gastos originados por los distintos Olentzeros de los barrios:

o Olentzero de Algorta : 8.032,5€

o Olentzero de Las Arenas: 6.825€

o Olentzero de Andra Mari: 3.203€

o Olentzero de Romo: 1.968,75€

o Olentzero de Neguri: 1.443,75€

o o Línea 4: ayuda de **6.300€** para sustentar la organización de la expresión cultural multitudinaria KORRIKA 24 y su paso por Getxo.



• • 5. Ildoa: Euskal Herriko gazteei Getxo eta Getxon egiten den kultura ezagutzera emateko proiekturen bat **4.200 euroekin laguntzea.**

• 6. Ildoa: Getxoko Gazteei Euskal Herria eta euskaraz egiten den kultura ezagutzera emateko proiektu bat **2.500 euroekin laguntzea**

Kreditu hau Getxoko Udalak 2026 urterako onartutako aurrekontuen 4810000 partidatik aterako da

2-. Eskerak aurkezteko epeak ondorengoak izango dira:

• Euskara jarduerak antolatzeko lokala: Deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 20 eguneko izango da.

• San Juan suak antolatzea; Deialdia BAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 20 eguneko izango da.

• Olentzeroak: eskerak aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 20a izango da.

• KORRIKA 24 (2026): eskerak aurkezteko azken eguna Deialdia BAOn argitaratzen den egunaren **biharamunetik 20 eguneko** izango da

• Getxoko kultur ondarea gazteei ezagutzera emateko; deialdia BAOn argitaratzen den egunaren **biharamunetik 20 eguneko** izango da.

• • Euskal Herria eta euskaraz egiten den kultura ezagutzera ematea Getxoko gazteei. deialdia BAOn argitaratzen den egunaren **biharamunetik 20 eguneko** izango da

o o Línea 5: ayuda de 4.200 euros para un único proyecto que muestre Getxo y la cultura desarrollada en Getxo a jóvenes de toda Euskal Herria.

o Línea 6: ayuda de **2.500 euros** para un único proyecto que muestre Euskal Herria y la cultura en euskera a jóvenes de Getxo.

Este crédito se abonará a cargo de la partida 4810000 aprobada para el 2026 en los Presupuestos del Ayuntamiento de Getxo

2- Los plazos para la presentación de solicitudes son los siguientes:

o Local para actividades de euskera: 20 días desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en BOB.

o Fogata de San Juan: 20 días desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en BOB.

o Olentzero: el 20 de octubre de 2026 será el último día para poder presentar la solicitud.

o KORRIKA 24 (2026): último día de presentación de solicitudes **20 días** desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en BOB.

o Ayuda para dar a conocer Getxo y su cultura entre jóvenes, 20 días desde el día siguiente a su publicación en el Boletín oficial de Bizkaia.

o o Ayuda para dar a conocer Euskal Herria y la cultura en Euskera a los jóvenes de Getxo, **20 días** desde el día siguiente a su publicación en el Boletín oficial de Bizkaia.



5.- Deialdia Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionalean erregistratuko da eta web orrian argitaratu.

Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da diru-laguntzen Basearen bitartez.

Deialdiaren ebazpena ere Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalean argitaratuko da, Halaber, Udalaren web gunean ere argitaratuko da.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, idazki hau sinatzen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

5- La convocatoria se registrará en la Base de Datos Nacional de Subvenciones y se publicará en la web municipal.

A través de la Base nacional de subvenciones, se publicará un extracto de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Asimismo, se publicará la resolución de la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, así como en la Web municipal.

Y para que conste a los efectos oportunos, firmo el presente con el visto bueno de la Presidencia.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO  
ELECTRÓNICAMENTE**



## **EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK** **2026ko DEIALDIA**

### **SARRERA**

Getxoko bizitza sozialean ohiko bihurtu dira euskal kulturatik eratorritako zenbait jaialdi. Jaialdi hauek herriko elkarteek antolatzen dituzte eta ikusle, entzule edo eta parte hartzaile kopuru handia izaten dute. Jaialdi hauen helburua getxotarren artean Euskal kulturako adierazpide batzuk ezagutzera ematea da; hala nola Olentzeroa; pertsonaia oso ezaguna eta errotua gaur egun eta neguko solstizioaren etorrerarekin lotzen dena, baita San Juan, korrika eta abar.

Getxoko hainbat elkartek, erakundek, enpresak... euskara edo euskal kultura sustatzeko ekintzak burutzen dituzte. Getxoko ESEPe jasotzen duen moduan, Udalak interesa du eragile horiek lokal egokiak izan ditzaten euren jarduerak burutzeko.

Kontuan izanda Getxoko ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak, ere helburu berdinak bilatzen dituela, hemen diruz-lagunduko direnak ESEPen jasotako helburuak betetzeko ekintza baliagarriak dira.

Oinarri orokor hauen lege-oinarriak ondorengoak dira: Dirulaguntzen inguruko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta 2021eko abenduaren 23an Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Dirulaguntzak Ematea Araupetzeko onartutako ordenantza (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurak ordenantza hau aldatzea onartu zuen. Aldaketa hauek 2025eko martxoaren 1ean sartu ziren indarrean.

### **1.- LAGUNTZAREN HELBURUA**

Indarrean dagoen Erabilera Plan Estrategikoan (ESEP) jasotako zenbait helburu lortzeko egokiak diren ekintzak antolatu edo garatzen dituzten hirugarren pertsona edo elkarteak diruz laguntzea.

### **2.- DIRULAGUNTZA ILDOAK**

Honako hauek izango dira dirulaguntza ildoak:

<b>1. ildoak:</b> Getxon, <b>lokal baten</b> gastuetan laguntzea, bai onuradunek bertan <b>euskara edo euskal kultura sustatzen duten ekimenak antolatzeko</b> , bai lokala uzteko hirugarren batzuek antolatu ditzaten bertan aipaturiko ekimenak.
<b>2. ildoak:</b> <b>San Juan suak</b> antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.
<b>3. ildoak:</b> auzoetako <b>Olentzeroak</b> antolatzean sortzen diren gastuetan laguntzea.
<b>4. ildoak:</b> <b>Korrika 2026an antolatzean sortzen diren gastuen laguntzea.</b>
<b>5. ildoak:</b> <b>Euskal Herriko gazteei Getxo</b> eta Getxoren kultur ondarea ezagutzera emateko laguntza.
<b>6. ildoak:</b> <b>Getxoko gazteei</b> Euskal Herria eta euskal ondarea ezagutzera emateko laguntza.

### **3.- NOR LAGUNDUKO DA**

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute Getxon helbide soziala duten irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko nahiz juridikoek. Jarduera bakoitzerako eskaera bakarra lagunduko da.



#### 4.- ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA, BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA ETA EPEA

**ESKAERAK:** eskaerak Udaleko bulego elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dira: **Getxoko egoitza elektronikoa.**

#### **DOKUMENTAZIOA**

- **01.- Pertsonaren NANaren kopia edo erakundearen IFKren kopia (bakarrik lehen aldiz eskatzen dutenentzat).**
- **02.- Erakundearen estatutuen fotokopia (bakarrik lehen aldiz eskatzen dutenentzat).**
- **03.- AURREKONTUA:** jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen eta sarrerren gaineko aurrekontu xehatua. Aurrekontu horretan zehaztuko da, halaber, jarduera horiek egiteko laguntza zein erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaion eta nork eman duten, emandako zenbatekoarekin batera.
- **04.- EGITASMOA:** egin beharreko jardueraren edo jardueri buruzko proiektua.
- **05.-UDALARI ESKATZEN ZAION AZPIEGITURA** (bakarrik San Juan, Korrika 2026 eta Olentzeroetarako).
  - Jarduerak burutzeko Udalari eskatzen zaizkion azpiegiturak.
  - Ekitaldietako egunetan aparkatzeko baimena: ibilgailuen marka eta matrikulak, zein kaletan aparkatuko duten, egunak eta ordutegiak.
- **06.- LOKALAREN EZAUGARRIAK** (bakarrik lokalari buruzko eskaeratarako, 1. ildo).
- **07 eta 08.- Gizarte Segurantzarekin eta Foru Aldundiarekin ZORRIK EZ IZATEAREN ZIURTAGIRIAK:** eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak **ofizioz** ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin. Eskatzaileak kontsulta horien aurka dagoela adierazten badu, eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu zorrik-ez hori ziurtatzen duten/dituzten dokumentua/k.

Eskatzaileei gogorarazi nahi diegu kaleko jardueraren bat egin ahal izateko ESPARRU PUBLIKOETAN EKITALDIAK EGITEKO eskaera erregistratu eta Babes Zibilerak bidali behar dutela. Hala badagokio, dirulaguntza ematea ekitaldia egiteko baimen ematearen menpekoea izango da, hau da, ekitaldia egiteko baimena jasotzen badu jasoko du dirulaguntza, bestela ez.

Getxoko Udalak baimendutako jarduerari emandako laguntzak ez du haren antolatzailea denik esan nahi. Hortaz, Getxoko Udala salbuetsirik geratuko da erantzukizun zibileko ondare erreklamaziorik balego, diruz lagundutako jardura(k) edo ekitaldia(k) modu normalean edo ez normalean egitearen ondorioz. Baleude, SGAeri dagozkion gastuak, beti ere, antolatzaileen kontura izango dira.



## EPEAK

<b>1. ildoak: Euskara jarduerak antolatzeke Lokala edo Aretoa</b>	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 20 eguneko</b> epea.
<b>2. ildoak: San Juan suak</b>	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 20 eguneko</b> epea.
<b>3. ildoak: auzoetako Olentzeroak</b>	Eskaerak aurkezteko azken eguna <b>2026eko urriaren 20a</b> izango da.
<b>4. ildoak: Korrika 24 (2026 urtea)</b>	2026ko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 20 eguneko</b> epea.
<b>5. ildoak: Euskal Herriko gazteei Getxo eta Getxoren kultur ondarea ezagutzera emateko laguntza.</b>	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 20 eguneko</b> epea.
<b>6. ildoak: Getxoko gazteei Euskal Herria eta euskal ondarea ezagutzera emateko laguntza.</b>	2026eko deialdia BAOn argitaratzen den egunaren <b>biharamunetik hasita 20 eguneko</b> epea.

## 5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntzen deialdi honetarako, **gehienez dagoen kreditua 48.858 eurokoa** izango da. Kreditu hau Getxoko Udalak 2026 urterako onartutako aurrekontuen 4810000 partidatik aterako da **eta era honetan banatuko da:**

<b>1. ildoak</b>	<b>Lokala edo Aretoa</b>	<b>11.760 €</b>
<b>2. ildoak</b>	<b>San Juan</b>	<b>2.625 €</b>
<b>3. ildoak</b>	<b>Olentzeroak:</b>	<b>21.473 €</b>
	• Algortako Olentzeroa	8.032,50 €
	• Areetako Olentzeroa	6.825,00 €
	• Andra Mariko Olentzeroa	3.203 €
	• Romoko Olentzeroa	1.968,75 €
• Neguriko Olentzeroa	1.443,75 €	
<b>4. ildoak</b>	<b>Korrika 2026</b>	<b>6.300 €</b>
<b>5. ildoak</b>	<b>Gazteei Getxo ezagutzera ematea</b>	<b>4.200 €</b>
<b>6. ildoak</b>	<b>Getxoko gazteek Euskal herria eta euskal kultura ezagutzeko</b>	<b>2.500 €</b>

**48.858 €**

**GUZTIRA:**

Dirulaguntzak lehia bidez, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira, 7. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta.



## 6.- GUTXIENEO BALDINTZAK

### 1. ildoak: KULTUR JARDUERETARAKO LOKALA

Ondoren agertzen diren baldintzak **derrigor bete beharko ditu** 1. ildo honetara aurkeztzen den lokalak hurrengo paragrafoan jasotzen den balorazio fasera pasa ahal izateko.

#### Lokalaren gutxieneko ezaugarriak:

- Gutxienez, 100 m<sup>2</sup>ko azalera izatea.
- Intsonorizatua egotea.
- Irisgarritasun baldintzak betetzea.
- Komunak izatea.
- Egoki jarrita eta martxan egotea: argia izatea, berogailua eta audio sistema.
- Karteleria eta iruditeria, gutxienez, euskaraz edo piktogramen bidez adierazia izatea.
- Lokala hirugarrenei uzten zaienean ekitaldiak antolatu ditzaten, uzte hori doakoa izango da.
- Dirulaguntzaren jasotzailea izango da, beti (ekitaldia berak antolatua izan edo hirugarren batzuek antolatua izan) lokalaren kudeaketa egokiaren ardura izango duena (zabaldu, itxi...).

#### Ekitaldi kopurua:

Lokalak, urtean, **gutxienez**, dirulaguntzaren helburuarekin bat datozen **40 ekitaldi** (hitzaldi, kultura emanaldi...) jaso beharko ditu.

### 5. ildoak: EUSKAL GAZTEEI GETXO ETA GETXON EGITEN DEN EUSKAL KULTURA EZAGUTZERA EMATEA

- Aisialdi jarduera euskaraz burutu behar da bere osotasunean.
- 20 urte arteko pertsonentzat antolatua izatea.
- Gutxienez 15 eguneko iraupena izan beharko dute
- Gutxienez 50 gazteren partehartzea izan beharko da.
- Euskal Herria, bere kultura eta hizkuntzaren ezagutza bilatzen du ekimen honek; horren barruan, Getxo ezagutzera ematea kanpoko gazteen artean garrantzitsua da; hortaz, ekimenaren bilakaeran Getxok ezinbesteko presentzia izango du: hasieran, amaieran, bere kultur ekimenak ezagutzera ematean, egonaldiren bat izatea...

### 6. ildoak: GETXOKO GAZTEEI EUSKAL HERRIA ETA EUSKAL KULTURA EZAGUTZERA EMATEKO EGITASMOA

Getxoko gazteei Euskal Herria eta euskal kultura ezagutzera emateko ildo hau, berria da eta ondorengo ezinbesteko baldintzak bete behar ditu:

- Aisialdi jarduera euskaraz burutu behar da bere osotasunean.
- Gazte partaideen gutxienez %80ak Getxon erroldatuta egon behar du.



## 7.- BALORATZEKO IRIZPIDEAK

### 1. ildoak: KULTUR JARDUERETARAKO LOKALA

Eskaerak ebazteko, ondorengo balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan:

- Lokalak 2. mailako jarduera-baimena izatea (Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizunen Saila, 2012ko ekainaren 25eko Agindua): 25 puntu.
- Lokalaren legezko edukiera: 20 puntu.
  - o 40 pertsona artekoa: 5 puntu.
  - o 41-90 pertsona artekoa: 10 puntu.
  - o 90etik gora: 20 puntu.
- Otorduak prestatzeko eta eskaintzeko aukera izatea: 15 puntu.
- Gutxieneko ekitaldi kopurutik gora, antolatzen diren ekitaldiak: 10 puntu.
  - o 41 ekitalditik 50era: 2 puntu.
  - o 51tik 60ra: 4 puntu.
  - o 60tik gora: 10 puntu.
- Getxoko Metro geltokietatik lokalera dagoen distantzia (Google hartuko da aintzat): 10 puntu.
  - o Oinez, 10 minutu bitartean: 10 puntu.
  - o Oinez, 15 mintu bitartean: 5 puntu.
  - o Oinez, 20 minutu bitartean: 2 puntu.
- Tranpaldoa izatea: 10 puntu.
- Telebista izatea: 5 puntu.
- Bideo sistema izatea: 5 puntu.

### 2, 3 eta 4. ildoak: SAN JUAN, OLENTZERO eta KORRIKA 2026

Eskaerak ebazteko, ondorengo balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan:

- Eskatzaileak jarduera antolatzen daukan esperientzia: 5 urte edo gehiago 30 puntu.
- Eskatzaileak antzeko gertaera edo jaiak antolatzen duen esperientzia: 5 puntu.
  - Zenbat eta nolako jarduerak diren.
  - Jai horiek jendetsuak izan dira (200 pertsonatik gora).
- Aurkeztutako egitaraua: 25 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan:
  - Egitarauak jasotzen dituen jardueren kalitatea.
  - Familia osoarentzako bideratuak izatea.
  - Ekintzen aniztasuna eta kopurua.
  - Berritzaileak izatea.
- Euskarari eta euskararen erabilerari, aurkeztutako egitarauan jasotzen diren ekintzek dakarkioten onura: 30 puntu.
  - Udalak onartu duen Euskara Planak, ESEPEk jasotzen dituen helburuekin bat dator?
  - Ume eta gazteentzako ekintzak euskaraz dira?
  - Euskal kulturari onura dakarkio?



**5. ildoak: EUSKAL GAZTEEI GETXO ETA GETXON EGITEN DEN EUSKAL KULTURA EZAGUTZERA EMATEA**

<b>Egitaraua:</b> <b>80 puntu</b>	<b>Proiektuaren aniztasuna:</b> <b>20 puntu</b>	<p>-Kultur adierazpen ezberdinak ezagutzera emateko egiten den ahalegina.</p> <p>-Ekimenean parte hartzen duten pertsonen aniztasuna; herri ezberdinetakoak, herrialde ezberdinetakoak, kultura ezberdinetakoak.</p> <p>-Aurkeztu den programaren aniztasuna: landuko diren gaiak, jorratu nahi diren esparruak eta abar.</p> <p>-Beste kultura batzuetako pertsonak eta adierazpenen ezagutza sustatzea.</p>
	<b>Proiektuaren aberastasuna:</b> <b>20 puntu</b>	<p>Euskalki eta hizkera ezberdinak ezagutzeko aukerarik izan duten ala ez: 8 puntu</p> <p>Euskal kultur ereduak eta eragileekin izandako topaketak, bisitak, interakzioak: 6 puntu</p> <p>Ezagutu edo bisitatutako Euskal Herriko herri eta ingurumenen aniztasuna: 6 puntu</p>
<b>Sustatu dituen baloreak:</b> <b>aurkeztutako programaren zein neurritan landuko diren sustatu nahi diren baloreak:</b> <b>20 puntu.</b>	<p>-Gazteen parte hartzea sustatzea gizarte bizitzan.</p> <p>-Gizarte kohesioa eta solidaritatea sustatzea gazteen artean.</p> <p>-Berdintasuna sustatzea gazteen artean.</p> <p>-Ingurumenaren errespetua sustatzea.</p> <p>-Ekintzailea, berritzailea, dinamikoa izatea.</p> <p>-Erabiltzaileen autonomia sustatzea.</p> <p>-Balioetan sentsibilizatzea sustatzea.</p>	
<b>Euskal Herriko gazteen artean Getxo ezagutzera ematea:</b> <b>10 puntu</b>	<p>-Getxon burututako ekintza, topaketak eta abar: 5 puntu.</p> <p>-Getxo gaitzat duten ikastaro, topaketa, elkarrizketa, bisita gidatu edo antzekoak: 5 puntu.</p>	





# Getxo

*bizi ezazu*

	<b>Ekimenean parte hartzen duten getxotarren kopurua: 10 puntu</b>	-5 getxotarretik behera: 3 puntu. -5 edo 5 getxotar baino gehiago: 7 puntu.
<b>Parte hartzaile kopurua: 20 puntu</b>	50-99 erabiltzaile: 5 puntu. 100-149 erabiltzaile: 10 puntu. 150etik gora erabiltzaile: 20 puntu.	



**6. ildoak: GETXOKO GAZTEEI EUSKAL HERRIA ETA EUSKAL KULTURA EZAGUTZERA EMATEKO EGITASMOA**

<b>Egitaraua: 80 puntu</b>	<b>Proiektuaren aniztasuna: 30 puntu</b>	<p>-Kultur adierazpen ezberdinak ezagutzera emateko egiten den ahalegina.</p> <p>-Ekimenean ezagutuko diren pertsonen aniztasuna; herri ezberdinak ezagutzea, adierazpen anitzak bizitzea; beti ere garaiko Euskal Herri anitza eta bizia ezagutzeko egiten diren ahaleginak, txangoak, bizipenak...</p> <p>-Aurkeztu den programaren aniztasuna: landuko diren gaiak, jorratu nahi diren esparruak eta abar.</p> <p>-Beste kultura batzuetako pertsonak kontuan hartzea eta bertora etorritako pertsonen adierazpenen ezagutza sustatzea.</p>		
	<b>Proiektuaren aberastasuna: 25 puntu</b>	<p>Euskalki eta hizkera ezberdinak ezagutzeko aukerarik izan duten ala ez: 8 puntu</p>	<p>-Euskararen aldaera 1 ezagutzeko aukera: puntu 1.</p> <p>-Euskararen 2-3 aldaera ezagutzeko aukera eskaintzea: 3 puntu.</p> <p>-4 aldaeratik gora ezagutzeko aukera: 8 puntu.</p>	
		<p>Euskal kultur ereduarekin eta eragileekin izandako topaketak, bisitak, interakzioak: 6 puntu</p>	<p>-Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 1-3 topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: puntu 2.</p> <p>-Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 4-8 topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: 4 puntu.</p> <p>-Kultur eragile edo adierazpenekin kontaktu kopurua: 9tik gora topaketa, bisita, interakzioa edo kontaktu: 6 puntu.</p>	
		<p>Ezagutu edo bisitatutako Euskal Herriko herri eta ingurumenen aniztasuna: 6 puntu</p>	<p>-Ezagututako gune fisikoak. 1-3 bisita: puntu 1.</p> <p>-Ezagututako gune fisikoak. 4-8 bisita: 3 puntu.</p> <p>-Ezagututako gune fisikoak. 9 bisita edo gehiago: 6 puntu.</p>	
<b>Sustatzen dituen baloreak: aurkeztutako programan zein neurritan landuko diren sustatu nahi diren baloreak: 25 puntu.</b>	<p>-Gazteen parte hartzea sustatzea gizarte bizitzan.</p> <p>-Gizarte kohesioa eta solidaritatea sustatzea gazteen artean.</p> <p>-Berdintasuna sustatzea gazteen artean.</p> <p>-Ingurumenaren errespetua sustatzea.</p> <p>-Ekintzailea, berritzailea, dinamikoa izatea.</p> <p>-Erabiltzaileen autonomia sustatzea.</p> <p>-Balioetan sentsibilizatzea sustatzea.</p>			
<b>Parte hartzaile</b>	<b>50-99 erabiltzaile: 5 puntu.</b>			





# Getxo

*bizi ezazu*

<b>kopurua: 20 puntu</b>	<b>100-149 erabiltzaile: 10 puntu. 150etik gora erabiltzaile: 20 puntu.</b>
------------------------------	---





Atal bakoitzean, dirulaguntzaren kopuru osoa emango zaio eskaera bakarrari; punturik gehien jasotzen duenari alegia.

Ildo bakoitzaren eskaerak egiteko epea amaitutakoan, eskaerarik aurkeztu ez bada, banatu gabeko diru kopurua beste ildo batzuen ondorengo ebazpenetan banatu ahal izango da, finantzaketa urria gertatu bada. Soberakinak gainontzeko ildoetan hainbanatu egingo dira.

## **8.- DIRULAGUNTZA ZURITZEA**

**2027ko otsailaren 15era (barne)**, dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da:

### **8.1.- MEMORIA**

**Ildo bakoitzean** garatu diren ekimenei buruzko memoria aurkeztu beharko da: parte hartzea, iraupena, antolatzaileak egiten duen balorazioa.

### **8.2.- BALANTZEA**

Jardueraren **gastuen eta diru-sarreraren balantze zehatza**. Jarduera burutzeko beste erakunde publiko edo pribaturen baten dirulaguntza ere jaso baldin bada, gastuen eta sarreraren balantzean zehaztu

### **8.3.- GASTUEN ZURIKETA**

#### **8.3.1. Gastuen zerrenda**

Lagundutako jarduera burutzean egon diren **gastu eta sarreraren zerrenda**. Zerrenda honek ondorengoak jasoko ditu: hornitzailea, kontzeptua, kopurua, fakturaren data eta hala badagokio, ordainketa data.

**Zerrenda honetan diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren %100 agertu behar da.**

#### **8.3.2. Fakturak**

Aurreko puntuan adierazitako gastuen zerrendaz gain, **jasotako diru kopuruaren %10 gutxienez suposatzen duten fakturak aurkeztu beharko dira** (fakturak edo bestelako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan froga-balioa dutenak edo eraginkortasun administratiboa dutenak). Fakturak diruz lagundutako jarduerarekin lotura behar dute izan eta ez dira sartzen pertsonal gastuak.

Euskara Zerbitzuak hala baderitzo, edozein momentutan eskatu ahal izango du jarduerarekin lotutako beste edozein egiaztagiri.

### **8.4.- MATERIALA**

Dirulaguntza jaso duen jarduerarako publizitatea egin bada: esku-orri, kartel... guztien ale bana.

Justifikatzeko aurkeztutako agiri guztiek dirulaguntza emandako ekitaldi ekonomikoko data izango dute.



## **Ohar garrantzitsuak 1. ildoko dirulaguntzaren justifikazioari buruz:**

### **1. oharra:**

Jasotzaileek lokalaren alokairu gastuak eta zeharkako gastuak (argindarra, berogailua...) sartu ahal izango dituzte zuriketan, beti ere, diruz lagundu diren jarduera-egunetan sortutakoak badira. Horretarako, onuradunek, zuriketan, adierazi beharko dute argi eta garbi zenbat egunetan burutu diren dirulaguntzaren barruan sartzen diren jarduerak eta jarduera horietan sortutako gastuen proportzioa zein izan den:

- Guztira, urte osoko, alokairu eta zeharkako gastuak eurotan.
- Dirulaguntzaren barruan sartzen diren jarduerak zenbat egunetan burutu dira?
- Proportzio horren arabera gastua eurotan.

### **2. oharra:**

Lokalaren alokairu gastuak onartuak izan daitezzen, onuradunek alokairu-kontratua aurkeztu beharko dute zuriketaren barruan.

### **3. oharra:**

Lokala onuradunena denean, baleude, gastu gisa onartuko dira mailegu hipotekarioari dagozkion gastuak, beti ere 1. oharrean zehaztutako proportzioan. Kasu honetan, zuriketaren barruan mailegu hipotekarioaren kontratua aurkeztu beharko du onuradunak.

### **4. oharra:**

Jasotzaileek justifikatu beharko dute, gutxienez, dirulaguntzaren helburuarekin bat datozen 40 ekitaldi antolatu direla diruz lagundu den lokalean; antolatutako ekitaldiak kopuru horretara iritsiko ez balira, jasotzaileek dirulaguntza zati bat bueltatu beharko dute, antolatu gabe utzi den ekitaldi-kopuruaren proportzioan.

## **Ohar garrantzitsua 5 eta 6. ildoetako dirulaguntzaren justifikazioari buruz:**

5. eta 6. ildoen zuriketa, alegia ("*Aisialdi jarduera euskaraz burutu behar da bere osotasunean*"), laguntza jasotzen duen elkartearen erantzukizuneko aitorten baten bidez egin behar da.

Getxoko Udalak edozein momentutan gutxienezko baldintza hauen betetzea egiaztatzeko aukera izango du.

### **9.- IZAPIDEA ETA EBAZPENA**

- **Deialdi** honetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da.
- Aurreko paragrafoan aipaturiko organo instruktoreak proposatuta, ebazpena emateko eskumena Alkateak izango du, beti ere ebazpen horren guztizko kopuruak 30.000 euroak gainditzen ez baditu; hala balitz, ebazpena Tokiko Gobernu Batzak emango du.
- Dirulaguntza emateko proposamena organo kolegiatu batek egingo dio Alkateari. Organo Kolegiatua osatzen duten kideak, 6414/2024 dekretuak adierazten dituenak dira.
- Ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntzaren eskaera ukatutzat hartuko da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki.





- **Deialdi** honetan araututako laguntzak emateko edota pertsona edo erakunde onuradunei ordaintzeko, itzultzeko edozein prozedura edo edozein zehapen-prozedura amaitu beharko da; hots, Getxoko Udalak emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidean dagoena.



## 10.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzak jasotako pertsonak edo erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Emandako dirulaguntza garaiz eta forman justifikatu beharra.
2. Aurreikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
3. Euskara Zerbitzuak egokitzat joz gero, emandako dirulaguntza aplikatzen den egiaztatzeko eta horren segimendua egiteko jarduerak burutzea.
4. Publizitatean eta komunikatzeko ekintzetan adieraztea proiektuak, egitarauak edota jarduerak Getxoko Udalaren laguntza izan duela.
5. Proiektuaren, programaren edo jardueraren publizitatean eta komunikazioa gutxienez euskaraz izatea. Ele bietara bada, lehenetsuna eman behar zaio euskarari tamaina edo kokapenean.
6. Proiektuaren, programaren edo jardueraren publizitatean eta komunikazioan hizkuntza eta irudi sexistak ez erabiltzea.
7. Erakunde kudeatzaileari dagokiona ordaintzea, eskubideak erakunde horrek kudeatzen dituen kasuan, katalogoko obrak erabiltzearen truke.

## 11.- HARTZAILEAREN EKIMENEZ EGINDAKO ITZULKETA

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena

887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Udalak emandako dirulaguntza, Udalak eskatu gabe.

Horretarako, lehenengo, onuradunak berak Udalaren dirulaguntza itzultzeko eskabidea egingo du, zergatiaren berri emanez. Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, ordainketa-gutun/errezibo bat erabiliko da. Ordainketa-gutun/errezibo hori Udalak luzatuko dio onuradunari.

## 12.- DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dagoen datu babesen gaineko araudiaren arabera, jakinarazten da eskarian agertzen diren datuak "Euskara Sustatzeko Dirulaguntzak" izeneko tratamenduan sartuko direla. Tratamendu honen arduraduna Getxoko Udala da eta helburua, Getxoko udalerrian euskara sustatzeko dirulaguntzak kudeatzea du.

